

María Montessori ospitale psikiatrikoan:

1. **Hasierako egoera deskribatu (nola dauden umeak: psikologikoki, emozionalki, lekua egokia al da?).** Inguruneari dagokionez, ospitale psikiatrikoa baino kartzela dirudi (ate zein leihoek barroteak zituzten). Ondoren ere beste gela batean ikus ditzakegu, non ez duten jolasteko eta denbora igarotzeko ezer. Garaiko beste eroetxe guztietan bezala, haurrak ere zeuden bertan, zeinak umezurtzak, epileptikoak, depresiboak... ziren, hau da, ospitaleratzea ez zen soilik muturreko kasuetan egingo baizik eta gizarteko araubide orokorretik pixka bat atera eta beraientzat inungo sendabiderik ez zegoela erabakitzen zuten mementorik. Hori dela eta gizartetik segregatzen zituzten, arriskutsutzat edo jotzen zituztelako asko edo bertan bizitzeko gaitasunik ez zutela ondorioztatzen zutelako. Garrantzitsua aipatzea, nola haurrak eta helduak egoera eta leku berberetan edukitzen zituzten.

“Se comportan como retrasados mentales, pero nadie sabe si lo son; tal vez sea por culpa de este lugar; este griterío y este vacío” dio Montesano eta hauek libratzeko modua, bertatik ateratzea dela aipatzen du. Halaber, eroetxeetan joera desegokiak murrizteko erabiltzen zen teknika nagusienetarikoa bat zigorrera zen (adibidez ohean hanka zein esku lotzea). Frogatua dago baina zigorrak ez direla eraginkorrak eta hare gutxiago denbora luzez eta zorrotasun zein basakeria horren bidez ezartzen direnean; azken finean, jokabideak aldatu baino, zigor horiek saihesten ikasten dute pertsonak eta posible da bestelade jokabide desegoki hori indartzea. Bestalde oso nabariak dira, biolentzia, indarra eta autoritatearen erabilera langileen aldetik; honek eragin ugariak izan ditzake baina bideoan agertzen den eroetxea kasu, haur horiek isolatu egiten dira eta inguru guztiarekiko konfidantza galtzea eragiten du.

Haurrak guztiz anulatuta daude emozionalki, ez baitituzte estimuluak jasotzen, zeinaren faltak haurren garapen integrala eta nozioa mugatu eta oztopatuko duten (atentzio falta, maitasun eta gertutasun eza, atxikimendu falta, etab.), erabat abandonatuta ikus daitezke eta ondorioz, txikienek ere beren defentsa mekanismoak aktibatzen (ezkutatzea edota langileei kozka egitea) dituzte egoera zail horiei aurre egiteko eta errealitate horrek dakarkien ondoreza saihesteko. Ikus daiteke beraz, nola eroetxean ez zitzairen ezer irakasten eta egiten zuten oro guztiz kaltegarria zela haur horien garapenerako. Animaliak edo objektuak balira bezala tratatzen zituzten. María Montessorik dio *“parece que están tristes en vez de enfermos, como prisioneros que quieren ser liberados”*.

2. **Psikiatren igurikimen/igurikapenak (espectativas), nolakoak ziren haurrenganako?** psikiatrek zinez usten dute haur horiengan ezin dela gauza handirik aldatu eta zerbait egitea bazegoen, medikuntzaren alorretik soilik lortu ahalko zela hori (haurrak neurtu, pisatu, medikatu...). Montesano izango da ikuspegi ezberdina edukiko duen bakarra, haurrak eroetxetik ateratzea ezinbesteko ikusiko duena egoera

hobetzeko eta musika bezalako baliabideak ezarriko dizkiena hobetzeko metodo gisara. Ez dute zeozer interesgarri bezala ikusten ezta bertan inbertitu beharreko ezer handirik dagoenik; Montesanoren proiektua esaterako ez dute behar bezain sendoa kontsideratzen ez baitute ikusten benetako aurrerapauso eta hobekuntza errealik egon litekeela haur horietan. Memento horretan bertan zeudenekin egin nahi zituzten saiakuntzak, eta hauen anai-arrebekin iada zer egin jakingo zuten. *“Como es posible que unos niños deficientes, retrasados sean más buenos que los normales”*

3. Zer egiten du M. Montessorik?

- a. **Espazioarekin, material didaktikoarekin...** Hasteko Montessorik ikusten du haur horiek ez dutela inongo estimulurik jasotzen, ez dutela zer ukitu, zerekin jolastu. Jarraitzeko, espazioa gelako mugetatik haratago zabaltzen du eta kanpora irteten uzten die, euritan jolastera. Gainera, lehen aldiz kalera irteten dira, ordura arte beti lau paretan artean egon ondoren. Forma eta kolore ezberdinetako objektu ugari eramaten ditu haurrek esperimendu beraiei ikaskuntza prozesua aurrera eraman eta estimuluak sentitzeko. Hizkien egurrezko piezak egiten ditu (material zimurtsua erabiliz, egurra) eta zentzumenei bidez lantzen ditu *“aprenden con la piel, mediante los sentidos”*, idazten eta irakurtzen irakasten die.
- b. **Bere igurikapenak umeenganako nolakoak dira?** Esperantza guztiak jartzen ditu eurengan, bene benetan sinesten du haur horiek hobetu dezaketela eta finean, bere arazoak ez direla hainbeste arlo medikora mugatu behar baizik eta *“ningún menor puede ser excluido de la ciencia que les corresponde: pedagogía”*, hezkuntzaren garrantzian egingo du enfasia uneoro. Hauengandik inorrek ezer espero ez duenean eta egoera ezberdinengatik gizartetik baztertuak direnean Montessori izango da benetan hauen garapen eta ikaskuntzan sinetsiko duena eta benetan, hori aurrera eraman ahal izateko aldaketak, borroak eta indarrak xahutuko dituena.
- c. **Testu-ingurua aintzat hartzen du?** Bai. Haurrei eskaini beharreko hezkuntza lantzen duen mementotik, guztia horientzat pentsatuta egiten du, material oro eskura izan dezaten. Gainera, estimuluei berebiziko garrantzia ematen die, zeinak inguruetik etorriko diren. Azken finean, autonomia bultzatu nahi zuen eta modu honetara, ikasleek testuingurutik xurgatzen dute eduki oro. Bestalde, ordungo hezkuntza sistema aintzat izanik, lehen hezkuntzarako prestatzen ditu, gainerako baldintza berberetan egiteko gai izan daitezten.
- d. **Zuen baratzeko baratzuriak (cosas de vuestra cosecha propia). Iritzia, adostasuna, ezadostasuna... nahi adina gauza.** Lehen-lehenik, garrantzitsua da aipatzea María Montessori emakumea zela eta hortaz, honek zailtasun eta oztopo bat gehiago izan zituela (sinesgarritasuna eskuratzea, errespetatu izatea, konfidantza edukitzea, etab.), identitate zapaldua baitzen emakume izanagatik. Baina Montessorik zioen moduan *“el enfermo tiene menos prejuicios que el que ha estudiado”*, hortaz psikiatrikoan zeudenek, ez zituztenez gizarteko araubide eta ideia berberak barneratu ez zituzten gainerako enburretan berberak.

Izugarrizko erreferentea iruditzen zait, izan zituen zailtasun andanak medio hezkuntza ulertzeko beste modu bat azaleratu eta martxan jarri zuelako, zeina gaur egun ere aplikatzen den.

Esan beharra dut hala ere, bere metodoaren planteamenduari arrisku bat ikusten diodala, indibidualismoan erortzea. Haurren autonomia bultzatzeko metodoak erabiltzen ditu, bakoitzari objektu bat ematen dio, bakoitzak esploratzen du, etab. Baita, gehiegizko espektatibak sortzeagatik ume horiek eta ingurua frustratzea, ikusirik egin nahi duten zerbait lortzen ez dela.

Maria Montessori, Romako auzo txiro eta gatazkatsuan:

- 1. Hasierako egoera deskribatu (auzoa nolakoa den, umeen eskolaratzea, higiena...).** Erromako langile auzo txiroenatarikoa, marjinala, “La vergüenza de Roma”; prostitutak, eskaleak, langabeak... bizi dira bertan. Baberik gabeko etxe ugari daude, bakoitzean 20 pertsonaraino aurki daitezke bertan, haur txikiak kalean daude gurasoek ezin dituztelako zaindu (lan egin beharra dutelako), biolentzia eta zikinkeria nagusitzen dira. Haurrak nahiko zikinak daude, oso erropa zahar, zarpail eta itxusituekin soinean, askok ez dute urik etxeetan eta beraz, ezin dira garbitu. Gehienak analfabetoen seme-alabak.

Hasieran aurkitzen duen eskolan arbel altuak, mahai pisutsuak, diziplina, sari-zigorak, etab. “*Todo en esta escuela esta pensada para reprimir las capacidades del niño*”. Haur horiek nonbaiten sartu beharra zituzten, ez baitzuten nahi kaosa eta desordena zabaltzea hortaz, Casa dei Banibi eraikitzen da eta bertan soilik ohiko eskola tradizionalako material eta ezaugarriak daude.

Material guztiak prestatzen dituzte eta haur zein gurasoak joaten dira bertara, orduan haurrek gauzak hausten dituzte, korrika ibiltzen dira, gurasoek haurrak zigortzen dituzte

- 2. Zer egiten du? (irakasleen formakuntza, espazioekin, materialekin...?)** Irakasle askok ez dute Montessorirengan sinestuko eta egiten duena alferrikakoa dela pentsatuko dute. Umeen garapen etapak aintzat hartzen ditu. Egin zitzakeen gastuak oso eskasak ziren, eta soilik altzairu eta objektu batzuetarako iristen zen. Hortaz, altzari eta materialak eraiki eta sortzeari ekin zion; psikiatrikoan erabilitako material berak eraikiarazi zituen; ez zuenez erabilera hori izan, inork ez zuen uste eskola-material moduan erabil zitekeenik; material guztiak auto-zuzenketaren printzipioaren baitan daude sortuak. “*La escuela no deberia ser la casa de los maestros sino la casa de los niños*”. Izugarrizko garrantzia ematen dio espazioen antolaketari. Haurra izango da hezkite-prozesuaren erdigunea.

Ume txikia sartzen du eskolara eta berarekin esertzen da haurrak iskanbilan dauden bitartean, orduan guztiak haurra ikustera hurbiltzen dira eta lasai-lasai esertzen dira inguruan. Bera imitatzeke eskatzen du, bera bezala isilik egoteko eta haurraren arnasa

entzuteko eta kasu egiten diote, isiltasuna zein polita den esanez eta zenbat soinuz entzun ditzaketeen erakutsiz.

Gauza delikatuak erabiltzen dituzte (ontziteria adibidez), honela zerbait puskatuz gero badakite gaizki dagoela eta hurrengoan kontu handiagoz ibiliko dira. Badute baratza ere eta gainera, idazten ikasten dute. Haurrek Mariak prestatutako material didaktikoarekin jolasten dute, ikastea dibertigarri zaielako.

- a. Testu-ingurua aintzat hartzen du?** *“La escuela actual castiga la miseria y la pobreza”*. Haur marjinaletuentzako eskola dela kontsideratzen dute askok eta berak hori aintzat hartzen du Casa dei banbinen miseria eta pobrezian bizi diren haur horientzako baldintza material, hezitzaile eta ekonomikoak ezartzen dituelako. Aitzat izaten duen arren ez du zuzenki enfasia egiten haur hauen egoeran eta ingurunean, beraien hezkuntzan baizik, guztiak direlako ikasteko gai eta guztiek dutelako horretarako eskubidea.
- 3. Irakasleen igurikapenak umeekiko. Zenbat animatzen dira eskola horretara joatera eta zergatik.** Irakasle bakarra agertzen da eskolara, hasteko eskola hori oso gune arriskutsu edota ez eroso ikusten dutelako. Soilik haur marginalentzako eskola hutsal bat dela iruditzen zaie eta uste dute beraien indarrak hortan xahutzea denbora galtzea dela. Ez dute ezer espero ume horiengandik, beti iskanbilan, zikin eta ezer ikasiko ez dutela uste dute.
- 4. Zuen baratzeako baratxuriak (cosas de vuestra cosecha propia). Iritzia, adostasuna, ezadostasuna... nahi adina gauza.** Pobrezia eta miseria latzenez lan egin zuela ikusirik, harrigarria iruditzen zait, gaur gaurkoz, Montessori eskolak, materialak edota metodologia aplikatzen den zentroak hain garestiak izatea. Ironikoa dela uste dut, orain aberatsak edo familia dirudunak izatea hezkuntza hau jasotzeko ahalmen eskusiboa dutenak. Gaur egun, bizi garen gizarte global kapitalistan, gehiengoaren erosahalmenaren galerak zuzeneko ondorioak ditu hezkuntza prozesuaren baldintza materialetan; ez soilik Montessori eskolei dagokienez, baizik eta orokorrean hezkuntza publiko zein pribatuak suposatzen dituen gastuak oso garestiak dira eta txiroenak ezin diete aurre egin. Gainera, sistemak filtro soziala litekeen moduko bat ere badu, zeinak etengabe ikasleak kanporatzen dituen (hautapropa, ebaluazio sistema) hortaz, nota onak ateratzeko gaitasuna dutenek aukera gehiago dituzte eta hori lor ez dezaketenak prozesutik ateratzen dira edota diruari esker gune pribatuetara jo dezakete. Horregatik zinez uste dut bere metodologiak aplikatzen diren arren, ez dela benetan bere ideologia jarraitzen, berak ez baitzuen hori planteatu modu eskusiboan eta soilik batzuek landu zezaten, gizarte osora zabaltzea nahi zuen.